

Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1998ko otsailak 5 • 138. zka.

Komunikabideen boom-a

Mundua gero eta gertuago

ALMEN

**SAN FRANTZISKO
XABIER**

SAN VIATOR

UMEZAINZA

Hezibide bailarari hezkuntz egitura kooperatibo aberatsa ematen dion elkartea, gure eskeintza azaldu nahi dugu.

Deba Garaian haur hezkuntzatik unibertsitate mailarainoko eskaintza integrala, propioa eta zabala ematen dakiten zentroak.



Deba Garaian etorkizuna eraikitzen



HEZIBIDE



PARTAIDE
Ikastolak

- zuk eraiki duzun eskola: ikastola.
- guraso, langile eta erakudeen partaidetza.
- etengabeko hobekuntzako konpromezua.
- autonomia: beharrei erantzuteko gaitasun osoa.


MATRIKULA otsailaren 26tik martxoaren 11ra **ZABALIK**

zatoz ezagutzera

Telefono mobilik baduzu? Beharrezkoa ikusten duzu?

Victoriano Sanchez

Bai, badaukat. Oso erabilgarria dela uste dut. Lanean asko erabiltzen dut.



Miguel Angel de la Torre

Ez, ez dut telefono mobilaren beharrik. Etxeko telefonoaz nahikoa dut, baina lan batzutarako beharrezkoa dela iruditzen zait.



Erkuden Urkia

(Langilea)


Ez, eta ez zait gustatzen. Nik ez nuke erosiko, baina autonomoentzako esaterako beharrezkoa dela uste dut.



Pepi Rosado

(Langilea)

Ez, eta ez dut telefono mobilaren beharrik. Nire gizonak badu, etxetik kanpo denbora asko pasatzen du eta. Batzuk beharrezkoa dute, baina ez da nire kasua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Indiako Adivasiak eta Inazio Galdos Atxabaltan

Datorren Otsailaren 7an helduko dira gure herrira I. Galdos eta bere lagunak gure artean aste pare bat pasatzeko asmoz.

Euskal Herrian barna hainbat leku bisitatu ondoren, herrian ere ekitaldirik izango da. Hain zuzen ere, Otsailaren 13an Zاراia zinemaren, arratsaldeko 19:00etan, hitzaldi baten ondoren Indiar dantza eta abestiez gozatzeko aukera paregabea izango dugu Atxabaltarrok.

Lerro hauetatik bertara etortzeko gonbidapena luzatzen dizuegu.

Bestalde eta Unai-Aretxabaleta gure lehendabiziko proiektuaren arrakasta ikusirik, urte honen bukaera ingururako edo, beste proiektu interesgarri bati ekiteko asmotan gabilta. Oraingo honetan elikaduraren esparruan sartuko gara; baina guzti honi buruzko berriak garaiari jasoko dituzue egoki. Ederra izango litzateke datorren proiektu berri horretan ere gure herriaren erantzuna aurrekoa bezain bikaina edo hobea

izatea.

Besterik gabe eta esan bezala, animatu eta inguratu zaitezte Zاراia zinemaren Indiako berriak gertutik jasotzeko aukera aprobetxatuz. Bitartean ondo izan!

HIRUATX TALDEA

OHARRA: Sarrera dohain izango da. Nahi duenak borondatea eman dezala.

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte. Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Maria Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre. **Erredakzio eta publizitate arduradunak:** Iratxe Bengoa eta Amaia Gastañaga. **Banatzailea:** Itxaso Barbero. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

e s k u t i t z a





Behelaldean lau metroko zatia geldituko da itxi barik barrura sartu ahal izateko

Iturri gorri frontoian datorren astean hasiko dira jarlekua ezartzeko obrak

Iturri gorri frontoiak, zabalik egotean, arazo ugari eman du, hotza dela, euria eta sarramarrak direla... Honen ondorioz, frontoia itxi egingo da. Lehenik gradak jarriko dira eta bigarren fase batean itxiera egingo da.

Hiru milioitako aurrekontua duen jarlekuen ezartzea datorren astean hasi eta hilabete inguruko epean bukatuta egotea espero da. Guztira 300 lagunendako lekua izango duten jarlekuak Ibarra

futbol zelaikoak modukoak izango dira.

Frontoiaren itxiera

Jarlekuak jarri ondoren, frontoia isteko bigarren faseari ekingo zaio. Itxierako zatia argi naturala sartzen uzten duen txapa prelatuzko moduloen bidez egingo da. Frontoia ez da, ordea, guztiz itxiko, behelaldean, lau metro zabalik geldituko dira barrura sartu ahal izateko.

Gurasoei zuzendutako saioak Kurtzebarri eskolan

Kurtzebarri eskolako BHIko IGEak gurasoei zuzendutako hitzaldi zikloa antolatu du. Ziklo honen gaia "Nerabegaroko arazoak: prebentzioa eta orientazioa" izango da. Hitzaldi hauetan, besteak beste, honako gaiak jorratuko dira: aldaketa fisiologiko eta kognitibok nerabeen izaera zein jokeran duten eragina; nerabeen independentziaren aurrean nola jokatu; lagun taldeak eta nerabeen

bizitzan ematen den egoera sexual berriak hauengan duten eragina eta nola lagundu euren identitatea sendotzen. Hitzaldi zikloa emango duena, Giza-Ahalmenaren garapenerako Institutuko zuzendaria den Iñaki Aporta izango da.

Hitzaldiak otsailaren 5, 12, 19 eta 26an izango dira Kurtzebarri eskolako liburutegian arratsaldeko 6,30etatik aurrera.

Zuhaitzak, moztu eta landatu

Sasoi honetan urtero egiten den legez, Udalak zuhaitzak landatu ditu herriko zenbait lekutan, trenbidean, kiroletxe ondoan, Institutu inguran, Galartza auzoan... Izenez hain ezagunak ez diren zuhaitzak landatu dira: 2 katalpa, 15 lore-gerizondo, 16 ligustruma, 19 konifera, 10 urki, 10 haritz eta 7 xarma. Esan behar da, ekintza honetarako 495.303 ptako gastua izan duela Udalak.

Batzuk landatu egin diren bitartean, beste batzuk moztu egin dituzte. Horietako bat Uratsgain egoitza aurreko jardinean zegoena, zikatuta zegoelako bota egin dute. Honen ordeztu beste bat landatu da: urkia. Beste biak, Loramendi auzoan bota dira, ondoko etxebizitzetara egiten zirelako. Udalaren adierazpenetan bi arbolek ez zuten balore haundirik eta oso jardina txikian landatuta zeudenez, ez da ordeztu zuhaitzik sartu bertan.

Istripua bariantean

Urtarrilaren 30ean bariantean gertatutako istripuan kotxe eta kamioi batek elkar jo zuten. Istripua bariantean Iturri gorri frontoitik 200 metrotara Arrasaterako bidean gertatu zen goizeko 8etan. Bertan 35 eta 27 urtetako D.B.B eta E.I.O azpeitiarra zaurituak suertatu ziren. Arrasateko eritexera eraman zituzten jarraian.

PIENSOS SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56

Okindegia - Gazotegia

Aretxabaleta

Mitarte, 1-Ifnoa: 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

Indiako 30°tako tenperaturak utzita, datorren zapatuan, hilak 7, arratsaldeko ordu 2etan helduko dira Sondikako aeroportura Indiako Gujerat eskualdeko hamabost Adivasi eta Inaxio Galdos. Eusko Jaurlaritzak antolatu duen Asia-Euskadi eguna ospatzera etorriko dira. Hemen egingo dituzten egunetan Euskal Herriko zein kanpoko beste herri batzuk bisitatuko dituzte.

Meza Adivasi erritora

Bi egun pasatuko dituzte Adivasiek Aretxabaletan. Zapatuan bertan, lehen ekitaldia eskainiko dute Andra Mari parrokian, meza Adivasi erara ospatuko da. Egundorretan Azatzako abatetxean lo egingo dute eta, domekan, beste saio bat izango da. Kasu honetan monjetan goizeko 9etako meza Adivasi errittoa jarraituz ospatuko da.

Aipatutako bi ospakizun hauek gain, hilaren 13rako konferentzia antolatuta dago Zاراia zineman. Bertan Adivasien musika entzuteko aukera izango da eta eguraldiak laguntzen badu, dantza saioa eskainiko dute plazan. Ekitaldia arratsaldeko 7,30etan hasiko da.

Hemen izango diren gainontzeko egunetan, egutegi zabala antolatuta dute indiarrek. Besteak beste, Xabierko gaztelua, Iruñeako San Ignacio eskola, Loiolako Santutegia, Euskal Autonomi elkarte hiru hiriburuak eta Euskal Herrikanpoko lekuak ere bisitatuko dituzte: Lurdes, Geronako Vich herria eta Murtzia.

Egitarauko egunik aipagarriena, Asia-Euskadi eguna izango da, Bilboko teatro Ayalan ospatuko dena, hilaren 14an. Adivasiek ekitaldia eskainiko dute bertan.

Estantziarako laguntza

Bidaiaiko gastu guztiak Eusko Jaurlaritzak ordainduko dituen arren, estantzia herriko elkarte desberdinen esku egongo da. Horregatik laguntasuna behar beharrezkoa izango dute ekimen honetarako. Antolatzailleek esker onez jasoko lukete edozein laguntza.



Adivasiak Asia-Euskadi eguna ospatzera etorriko dira Euskal Herrira

Datorren zapatuan arratsaldeko 7,30etan meza izango da parrokian Adivasi erritora

Emakumeak ere bai

Adivasiak bigarren aldiz etorriko dira Euskal Herrira. Aurreko aldian, 1991ko ekainean, San Juanetan, gizonezkoak bakarrik etorri ziren. Oraingo honetan, bost emakumezko eta sei gizonezko etorriko dira, baita bi jesuita eta bi monja ere. Jose Olabek jakitera eman digunez, "Indian emakumeak duen egoera

ikusita, kostata lortu da emakumeak etorri ahal izatea". Hori lortzeko asko burrkatu behar izan dutela gehitu du.

Bitxia bada ere, datozen Adivasi gehienek lehen aldiz ikusiko dute itsasoa, eta ez hori bakarrik, hemen go gauza gehienak berriak izango dira eurentzat. Gainera hozbero aldaketa dela eta, bero haundirik ez dute pasatuko hemen.

Romualdo Akixuri adio

Gujerat-en urte askotan bizi izandako Romualdo Akixu Errasti Jesuita atxabaltarra, urtarilaren 22an hil zen Loiolako Santutegian 74 urte zituela. Romualdo Aretxabaletan jaio zen 1923. urtean. Loiolan gogojardunak egin eta Jesuita sartu zen 1942an.

Lehen ikasketak Loiolan eta Oñan (Burgos) burutu zituen eta jarraian Indiara misiolari joatea erabaki zuen 1950. urtean. Indian ere ez zen geldi egon, Bombay-n ingelesa ikasi, gujerati Anan, Teologia Punan eta 1957an apaiz egin zen Ahmedabaden.

Geroztik, misiolari ibili zen Indiako Gujerat-eko hainbat herritan,



beti ere nekazari eta behartsuenei laguntzen. Zoritxarrez, orain 7 urte Indian izandako kotxe istripu larrian, gutziz errekuperatu ezinik gelditu zen.

Gujeratiek ondo ezagutzen zuten Romualdo, betidanik gizon alaia, plazagizona eta laguntzeko gertu zegoen horietakoa zen.

Bisita Aretxagazetara

Aurreko astean, Aretxagazeta gertutik ezagutu eta euren jakinmina asetu asmoz, Almeneko laugarren mailako ikasleek bisitatu gintuzten.

Marian Zubizarreta eta Ana Rosa Urrutiaren ikasleek Aretxagazetaren inguruko galdera sorta ederra prestatu zuten. Ondo informatuta joango zirela uste dugu.



San Blas eguna

Ohiturari jarraituz, aurten ere San Blas egunean jende ugari gerturatu zen Sailluentera. Eguraldi goibela azaldu bazen ere, eskoletako neska-mutiko eta irakasle mordoia ausartu zen ermitara igotzera, baita adin guztietako herritarrak ere.

Meza goizeko 11:00etan ospatu zen, eta gerturatutakoek, eramandako janari, edari eta landareak bedeinkatzeko aukera izan zuten.

San Rokeak Institutoan

Aretxabaletako Institutoak San Rokeak ospatu zituen urtarrilaren 30ean. Egunean zehar, makina bat ekintza antolatu zen, esku-pilota, pala, saskibaloia eta futbito txapelketa, ingelesez idatzirikoa txiste txapelketa, etabar.

Ekintzaz beteriko egun honi amaiera ezin hobea emateko, partaide guztiak "lunch" ederra dastatzeko aukera izan zuten!



Argitarapen honen edizioko laguntzailea:

 kutxa

*fundazioa
fundación*



Josu Otxoa

Modeloen munduan sartu den gaztea

Gellaon bizi, atxabaltar sentitu, eta gaur egun modelo ikasketak egiten dihardu 19 urteko Josu Otxoak. Desfile batean parte hartu eta bertatik sortu zitzaion mundu honetan sartzeko grina. Modaren munduan leku bat izateko ahaleginetan burubelarri ari da gazte hau.

- Josu, noiz eta nola sartu zinen modeloen munduan?

- Behin ileapaindegiko desfile batean parte hartu nuen Arrasateko Magna diskotekan. Bertan zegoen diseinadore batek, desfilean partehartzeko Gasteizera joateko esan zidan. Nik mundu hau ezagutzen ez nuenez, lehenengo ikastea pentsatu nuen eta horrela hasi nintzen Gasteizko Txeroki akademian modelo izateko ikasten.

- Zer ikasten da akademia horretan?


- Bi berbetan esateko, pasarelan irtetzeko pausoak, argazkilaritza, makilaia, etabar. Pasarela batean irtetzeak esaterako erraza dela ematen du, baina atzetik ikasi beharreko asko dago, pausoak, keinuak...

- Moda munduan jende asko ari da ikasten?

- Gure akademian esaterako jende asko hasi zen hasieran, baina orain askoz ere gutxiago gaude. Jarraitzeko asko gustatu behar da. Neskak mutilak baino gehiago dira,



“Moda mundua gustatzen zait eta aurrera jarraitu nahi dut nire ikasketekin”



hamabi bat neska eta mutilak, berriz, lau gaude.

- Hasi besterik ez zara egin, prestaketa berezirik exigitu dizu?

- Gimnasia joaten naiz, baina hori norberaren esku dago. Bestalde, gorputza ere zaindu beharra dago, baina alde horretatik oraindik ez dut beharrik izan.

- Lagunek eta familikoek zer esaten dizute?

- Bai lagunak, bai familikoek asko lagundu eta animatu naute aurrera jarraitzeko. Hasieran arazoak izan nituen, baina gero gaia benetan planteatzen ari nintzela konturatu zirenean, asko animatu naute.

- Casting-etara aurkeztu zara?

- Bai, bi casting-netara aukeztu naiz eta hiru desfiletan parte hartu dut: Arrasaten, Gasteizen eta Burgosen.

- Mister Arabara aurkeztuko zarela ere entzun da, egia da?

- Oraindik ez dakit zer egingo dudana.

- Modeloen munduan aurrera jarraitzea gustatuko litzaizuke?

- Oraingo bai, benetan gustatzen zait mundu hau. Gasteizkoa bukatutakoan Madrilera joateko asmoa daukat ikasketak jarraitzera.

- Bukatzeko Josu, zein da zure gorputzeko atalik gustokoena?

- Begiak.

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP


*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA



“Ilargian ura (izotza) dagoela baieztatzen bada gero eta indar haundiagoarekin zabalduko da giza-kolonia ilargitarraren ametsa”

Berriz ere ilargira?

Joan zen azaroan bete ziren 25 urte gizakia Ilargian seigarren aldiz egon zenetik. Bidaia haren ondoren NASAk bertan behera utzi behar izan zuen Apollo egitaraua, kasu hauetan ohi denez, arrazoi ekonomikoengatik. Ilargira iristeko proiektuan, arrazoi politikoak NASaren helburu zientifikoak baino pisu haundiagoa izan zuten; lehengo haiek indarra galdu zutenean proiektua ere beraiekin desagertu zen.

Hainbeste urteko ahanzturaren ondoren, berriro ere Ilargiaren txanda dela erabaki du NASAk, eta dagoeneko hantxe dugu “Lunar Prospector” espaziuntzia Ilargiaren inguruan biraka. 100 km-ko altueratik ari da Ilargiaren gainazalaren mapa zehatzak egiten, baina beste lan garrantzitsu batzuk ere egingo ditu. Adibidez, grabitatearen eta eremu magnetikoaren lekuan lekuko neurketa zehatzak egingo ditu, horrela gure satelitearen barru-egituraz ere informazioa lortu ahal izango delarik.

Hala ere, aipatutakoak ez dira izango ikusmin eta zeresan gehien sortuko duten esperimenduak; komuni-

kabideetan hizpide izango ditugunak izotza aurkitzeko esperimenduaren emaitzak izango dira. Ilargian ura (izotza) dagoela baieztatzen bada, gero eta indar haundiagoarekin zabalduko da giza-kolonia ilargitarraren ametsa. Ametsa diot oraindik ezin daitekeelako asmoz hartu; baina ez ezinezko irizten diodalako. Urarena ez da gainditu beharreko arazo bakarra. Grabitate gutxiko baldintzetan luzaro bizi zean gorpuzak nola erantzuten duen, edo erradiozioarekiko babes-sistema baten diseinua (Lurrean atmosferak egiten digu lan hori, baina Ilargiak ez du atmosferarik) ez dira nolana hiko kontuak. Zientziaren garapen bideak, ordea, agortezinak dira, eta luze joko lukeen arren gainditu beharreko arazo guztiak gaindituko lituzke. Jakina, azken erabakia politikarien eskutan egongo litzateke, baina badaezpada zientzilariak bidea zabaltzen hasiak dira.

Hurrengo Ilargiari begiratzean, bada, ez ahaztu han dela “Lunar Prospector”-a gure satelitea miatzen.

JESUS ARREGI

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

**ORTOPEDIA
ORTO LAGUN**

Zu laguntzeko gaude

- Ohe artikulatuak
- Bañerak, gruak, takatakak.
- Komuneko aulkiak, gurpil aulkiak arinak eta elektrikoak.

Kontzezino 2 • ARRASATE • Tfnoa: 79 89 34

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA**


BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

**LOGELETAN
maisua**

**Zapata
arratsaldeetan
zabalik!!**



**Eta orain
2. SOLAIRUA**

**Saloi eta sofa
erakusketa**

**Etxe Mobil, Deba Garai eta Behean zehar logela, sofa, saloi eta osagarriak
errezago topatzeko merkatal zentrua. 48 urteko esperientzia.
Bertako profesionalek zuzendua. BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 79 41 82

ARRASATE

TABERNA eta JATETXEEN GIDA


Mitarte Garai



Mitartegarai
Jatetxea

Aozaratz auzoa
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 32 34

Urbaltz taberna



URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

Artano taberna

Herriko
plazan

ARTANO

Aitorik onena

Herriko plaza, 3 • 79 62 75

Izotz taberna

Zure gustoko giroa

IZOTZ
TABERNA

Mitarte, 1 • ARETXABALETA
Tfnoa: 77 03 08

Taberna Berri



Taberna Berri
Jatetxea

Durana, 26 • ARETXABALETA
☎ 79 20 67

Zaraia taberna

MANTEKA
ANAIK

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzuan

Araba Ibilbidea, 20 • 79 88 95

Bedarreta taberna

Bedarreta

Beti bezeroen zerbitzura

Otalora, 19 ♦ Tfnoa: 79 20 89


Baster alde jatetxea



Sasoiko
jakiak
giro
onenean

Galartza auzoa
☎ 79 24 58
ARETXABALETA

Goyaran erretegia



GOYARAN ERRETEGIA

♦ Parrila espezialitatea

Solohaundi-8
ARETXABALETA ☎ 79 68 57

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tfnoa: 79 85 57

Dorleta taberna

Dorleta

Beti bezeroen zerbitzura

Mitarte, 9 • ARETXABALETA
☎ 79 92 01

Basabe jatetxea

Menu eta
afariak

BASABE
JATETXEA

Basabe poligonoa • 79 91 84

Mendiola erretegia



♦ Bazkari
eta afariak

Astelehenetan
itxita

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Express akeitegia

Express
akeitegia

Zure gustoko giroa

Santa Kurtz, 16
ARETXABALETA ☎ 79 23 43

Amets taberna

AMETS

taberna eta kafetegia

Iparagirre, 4 • 79 01 29
Aretxabaleta

Komunikabideen erreinuan

XXI. mendearen ateetan gaudenean, komunikabide eta komunikazioak muga gehienak gainditu dituela ematen du. Gaur egun munduko edozein txokotatik komunika gaitezke. Teknikaren aurrerapen ikaragarriari esker, komunikabideen mundua etengabe eta abiada azkarrean garatuz doa.

Komunikazioa bera gizona bezain zaharra da. Gizakiak eta baita animaliak ere hasiera-hasieratik komunikatu beharra izan du, keinuak, hizkuntza, zenbakiak, korreoa, inprimakiak, etabar erabiliz. Aintzinako komunikabideetatik gaur egunekoetara, ordea izugarritzko iraultza eman da.

Teknika modernoaren aurrerapenari esker, komunikabideen mundua izugarri garatu da, zeuden tresnak hobetu egin dira, metodo berriak sortuz.

KOMUNIKABIDEEN BILAKAERA

Gizakiak hizkuntza bera asmatu zuenean, Samuel Morsek telegrafoa, Graham Bellek telefonoa, zeinek esango zuen XX. mendean komunikabide eta industria informatikoak horrelako iraultza eman-go zutenik. Gaurko gizartean, asmakizunak, hobekuntzak eta aplikabide berriak izugarritzko abiaduran ari dira bata bestea gaindituz, merkatura irten orduko beste zenbait aldakuntzarekin bilatu daiteke tresna bera.

Komunikabideen iraultza honetan, aldakuntza haundia eman zen, satelite bidezko teknologia sartu zenean. Jon Altuna, Arrasate Eskola Politeknikoko elektronikako maixuaren iritziz, "hauxe izan zen iraultzarik haundienetakoa". Munduko edozein leku-

tatik komunikatu ahal izatea suposatzen zuen. Ordurarte komunikabide guztiak lurrekoak baziren, gure satelitearen orbitan jarritako sateliteek lurralderik galduenaz harremanetan jartzeko aukera ekarri zuten.

Bestalde, orain artean arlo desberdinak zirela uste izan den informatika eta telekomunikazioaren munduak, telefono sareetako datuen digitalizazioari esker ia elkartu egin dira. Horrela telefonía sistemek informatikako datuak transmititzen uzten dituzte eta mundu mailako ordenadore sare indartsua sortzea ahalbidetu du, Interneta esaterako.

INTERNET-a

Internet hitza eguneroko bihurtu da azken urteotan. Gure herriko enpresa asko lotuta daude Internet sarera, baina hala ere, Ion Altunaren iritziz, "Euskal Herria nahiko atzera dago, beste eskualde eta estatu mailako herrialdeekin konparatuz. Estatu mailan Katalunia eta Madrilak goranzko joera nabarmena azaltzen duten bitartean, gure komunitatean ez da iguera horren nabarmena.

Internet-a erabiltzeko ordenagailua, telefonoa eta modem-a behar dira. Horretaz gain, zerbitzua eskaintzen duen enpresa batekin kontratua egin beharra dago. Gure kasuan Aretxagazeta ere Internet sarean sartua dago Saretxo elkarteari esker. Saretxo Gasteizko Jet enpresa zerbitzuekin lotuta dago Internet-era. Alberto Izagirrek, Saretxo infor-



Industria informatikoa asko garatu da azken urteotan

matika elkarteko arduradunetako batek, jakitera eman digunez, "normalean pertsona bakoitzak 10.000 /15.000 pta. ordaintzen ditu Interneten sartzeko. Saretxok, berriz, 100.000 pta ordaintzen ditu urtero. Diferentzia hori eskaintzen den zerbitzuan dago: Saretxok bere dominio propioa du, web orrialdeak sortzeko mugarik ez du, eta

Telefonoa telebistara konektatzea edo ordenagailua bideora sinez gaitza dirudien arren, guztiak aparatu berdinean izango ditugun eguna helduko da.



Telefono mobiletan hirugarren generazio bat sortu nahi da

RDSI edo informazioa modu digitalean bidaltzeko aukera dauka.

Internetek eskaintzen dituen zerbitzu garrantzitsuenak, WWW (Word Wide Web) eta E-mail-a edo posta elektronikoa dira. WWW Interneteko atalik bisitatuena da. Informazio orri edo guneak dira eta Internetera konektatua dagoen edonork sor ditzake Webeko orri propioak. Posta elektronikoko zerbitzua, beharbada Interneteko zerbitzu erabilgarriena eta samurrena da. Mezu bat bidaltzen da edonora helbide elektronikoko batez baliatuz. Erosoa, merkea, azkarra eta dokumentuak artxibatzeko primerakoa da.

Internetak, moda-modan dagoen komunikazio sare honek, bere desabantailak ere baditu. Saturazio izugarria du eta oso motel funtzionatzen du. Hori dela eta, Bill Gates Microsofteko zuzendariak, arazo honi irtenbidea

eman nahian, Interneteko informazioa satellite bidez bidaltzearen aldeko apustua egin nahi du. Zer esanik ez, XXI. menderako beste erroka bat izango da.

TELEFONO MOBILA

Azken urteotan boom izugarria izan duen telefono mobila, pilpilean dagoen gaia da. Europearrek eta amerikarrek sistema desberdinak sortu zituzten euren artean konpatibleak ez zirenak eta orain standar bat sortu nahi da, hirugarren generazioa izango litzatekeena. Hala ere, amerikar eta europearrak ez dira ados jartzen, amerikarrek euren sisteman oinarritutakoa nahi dute eta hobe dela frogatzen dute. Europearrek, berriz, bien arteko nahasketa izan behar duela diote. Zein sistema erabiliko den erabakitzeke bota-zioak egiten ari dira azken hilabeteotan. Egia esan, hirugarren gene-

razio honek estatu eta kontinenteen orain arteko mugak gainditzen lagunduko du.

Telefono mobiletaz ari garenean, bada merkatura laster aterako den beste tresna bat ere, Internet eta telefono mobila batuko dituen aparatua hain zuzen ere.

EUSKATEL:

EUSKAL OPERADOREA

Eusko Jaurlearitzak, Euskaltel, euskal telekomunikazioetako bigarren operadorea martxan jarri du. Telefonicaren monopolioa bukatu da eta Euskaltel probintzia arteko eta nazioarteko dei zerbitzuak eskaintzen hasi da, 050 aurrezenbakiaren bidez. Oraindik bide luzea duen arren, poliki-poliki joango da etxebizitza nahiz enpresetan konexio zuzenak egiten, eta orduantxe eskainiko du era guztietako telefono deiak egiteko aukera. Euskaltelek, hamabost urtetan, biztanle guztien %90en eskuetan jarri nahi ditu bere zerbitzuak, eta hamar urtetan EAEko merkatuaren %20a bereganatzeko asmoa du. Horretarako 50.000 milioi pezetatik gorako inbertsioak egingo ditu datozen urtetan. Bidea ez da erraza izango, oraindik Telefonicaren monopoliotik datozkion eragozpenei aurre egin beharko die.

Tarte honetan, kanpoko herrietara deitzeko Euskaltel operadorea aukeratu duen eta telekomunikazioaren berrikuntzen eragina nabari duen gipuzkoar herri bat aipatu behar da. Urnietak bere telefono konpainia du: Urnietatel. Herrian orain urte batzuk kablezko

Herrian orain urte batzuk kablezko telebista sartzeko hodiak jarri ziren, eta gaur egun herria inguratzen duten hodietan zuntz optikoa dago: telekomunikazioen merkatuan dagoen seinale digitalak bidaltzeko sistema aurreratua. Laster, beraz, telefono sistema aurreratu honek ematen dituen abantailez gozatzeko aukera izango dute urnietarrek.

TENDENTZIAK

Itxura denen arabera, etorkizun hurbilean etxe guztietan sartuko da zuntz optikozko kablea. Gaur egun etxean ditugun komunikazio sistema gehienak, telebista, bideoa, irratia, eta telefonoak sistema analogikoa dute.

Baina errealitate hau aldatzen ari da, sistema digitalari eta zuntz optikoari esker, telefonoa telebistara konektatzea edo ordenagailua bideoa sinezgaitza dirudien arren, posible izango da eta guztiak aparatu berdinean izango ditugun eguna ere helduko da. "Telebistak internet inkorporatuko du aurki eta ez da beharrezkoa izango ordenagailua edukitzea" - dio Jon Altunak.

Dena den, aldaketa honek suposatzen duen infraestruturaz egiteko dago oraindik. Urte batzuk pasa beharko dira, multimedia interaktiboa etxe guztietan errealitate izatera iritsi arte. Badirudi sistema digitala etorkizuneko giltza izango dela, baina galdera bat ere sortzen da guzti honen inguruan, zer gertatuko da etorkizuneko sistema digitalak gaur eguneko tresna analogikoak bezain inkompatibleak izaten badira? Orduan iraultza digitalak bere helburuak lortu ez dituela onartu beharko dugu. Beraz, etorkizunean ere, marka desberdinetako eta inkompatibleak diren ekipoez lan egin behar izatearen arriskua dago.

Iraultza guzti honek ekarriko dituen alde onak eta txarrak alde batera utzita, kontua da, askakizunak, hobekuntzak eta aplikazio berriak konturatu orduko izango ditugula ate joka.

Jon Altuna

Telekomunikazioan doktoratua

Telekomunikazioan doktoratua, gaur egun Arrasateko Eskola Politeknikoan elektronikako maixua da Jon Altuna lazkaotarra. Komunikazioen iraultza honen inguruan berarekin aritu gara berbetan.

- Komunikabideen boom honetan, desabantailarik ikusten duzu?

- Gehienak abantailak izan arren, badira desabantailak ere, kontrolik ez egotea adibidez. Interneten ez dago kontrolik eta gainera oso zaila izango litzateke kontrol bat ipintzea, zentsura dela esango lukete. Edozein informazio aurki daiteke bertan, azken urteetan hainbesteko oihartzuna izan duen pornografiako informazioa esaterako.

- Euskaltel enpresa sortu berri da. Zer suposatuko du Euskal gizartearentzat?

- Lehen telefonikak zuen Estatuko monopolio guztia, eta hau liberalizatu denean, enpresa berriak sortu dira, Euskaltel esaterako. Honek konpetentzia haundiagoa ekarriko du eta hori onuragarria izango da prezioak merketzen lagunduko duelako. Oraindik ez du bere zerbitzu propioa eskaintzen, telefonikarena eskaintzen ari da, baina poliki-poliki bere zerbitzu propioa jarriko du eta euren apustua zuntz optikoaz egingo dutela uste dut, sistema digitala erabiliz.

- Urnietarrek telefoniako zerbidore propioa sortu dute. Zer suposatuko du?

Zerbidorea etxetik gertu izatea onuragarria dela uste dut, deiak merkeagoak izango dira, baita Interneterako eta korreo



elektronikorako ere.

- Euskal Herri mailan nola ikusten duzu komunikazioen boom hau?

- Interneta erabiltzeko orduan behintzat, beste herrialde eta Estatu batzuekin konparatuz atzera gaude. Katalunia eta Madrilak esaterako Internetaren kasuan goranzko joera nabarmena dute, eta gure kasuan ez da hori gertatzen. Poliki-poliki gero eta enpresa eta partikular gehiago sartzen ari da, baina igoera ez da oso nabarmena.

- Telefono mobilek kantzerra sortzen dutela entzun da, zein iritzi duzu horren inguruan?

- Garezurretik hain gertu trasmisio bat egitea onuragarria ez dela garbi dago, baina hortik kantzerra sortzen duela esatea larregi iruditzen zait. Microuhinei buruz ere gauza bera esaten zuten. Satelliteak ere hor daude espazioaren orbitan eta horiek bidaltzen dituzten uhinak ere ez dira onuragarriak izango.

- Komunikazioak duen etengabeko garapen honetan, zein aurrikuspen egingo zenuke?

- Askok egin daitezke, baina hemendik urte batzutura etxe guztietan izango da Interneta, beste komunikabide batzuk bezain beharrezkoa izango da.



Finalista eguna "Mendiola-Burun"

Urtarrilaren 25ean, finalista eguna antolatu zuen Zاراia M.Tak Mendiola-Burun. Bertan finalista sariak banatu ziren, honako hauek izan ziren sarituak:

Gazte mailan, Jonathan Ruiz, Larraitz Garai, Xanti Larrañaga, Estela Ruiz eta Esti Larrañaga. Jubeniletan aldiz, finalista bakarra egon zen, Anaitz Garai.

Nagusien taldean berriz, jubenil mailan ez bezala, partaidetza handia egon zen, finalistak, Julián Jausoro, Antonio Fabian, Amaia Ortiz de Zúñiga, Javier Aranegui, Martin Garai, Iban Luelmo eta Robustiano

Rodriguez izan zirelarik.

Finalista izatera heltzeko bete beharreko baldintza bakarra, metro kopuruarena izan zen. Gazteetan urteko 12.000 metro egitea eskatzen zen, jubeniletan aldiz 25.000 metro, eta azkenik nagusiei 30.000 metro.



Inurrategi anaiak etxerako bidean

Urtarrilaren 27an, Inurrategi anaiak eta Josu Bereziartuak Manasluko tontorra egiteko hirugarren ahalegina egin zuten.

Aurreko saioetan bezala, eguraldi txarra aurka izan zuten, oraingo honetan izotza etsai nagusi izanez.

Mendiak dituen 8.163 metro-etatik, 7.500 igotzea lortu zuten, baina izotza zela eta, bigarren kanpamendura jeitsi beharra izan zuten.

Hiru mendigoizaleak, aste honetan bueltatuko dira etxera.

Oier Garro, afizionatu mailan

Hamargarren urtea da Oier Garro atxabaltarra txirringularitza munduan sartuta dagoena, eta dagoeneko, 18 urterekin, Arrasate Kirolak, J.M eta Fagor taldeen partaide izan da.

Baina aurten afizionatu mailara igo denez, aurrerantzean, Arrasateko Born Jai taldearekin arituko da.

Talde hau, 18 mutilez osatuta dago, eta domeketan entrenamen-

duak batera egiten dituzten arren, astean zehar, bakoitza bere entrenatzailearekin prestatzen da. Entrenamenduetan eginikoa neurtzeko, matxoaren erdi aldean izango du lastekerta bat Oierrek.

Munduko kross txapelketa

Datorren otsailaren 6an, Joseba Larrinaga Portugaleko Algarberantz abiatuko da, non elbarritu mailako munduko kross

txapelketa korrituko duen. Bost kilometrotako luzeera dauka otsailaren 8an ospatuko den lasterketa honek.

Aipatzekoa da 3.aldia dela Joseba Algarbera joaten dena, baina aurreko urteetan, froga internazionala izan den arren, ez da munduko kross txapelketarik izan.

Munduko maratoni txapelketan egondakoa bada ere, munduko kross txapelketan aurten egingo du bere debuta.

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
ARETXABALET

Izozkitekiki-Gozotegia IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALET



Zenbaki

Basabe
Industrialdea
ARETXABALET
Tfnoak: 79 88 75
79 75 99

Aholkularitza



- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala
Andra Mari Auzunea, 3
79 29 26

LEIBAR arraindegia

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALET



MEMESA S.L.

Industriaren alde
Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALET

Jesus Mari Rosado "Txispas"

"Zazpi lagunek Luz-Saint-Sauveren etxe bat alokatzen dugu"

Eskiatzea oso gogoko du "txispas"ek, eta pistako eskiari gogor egiten dion arren, behin edo behin praktikatu duen trabesiako eskia ere ondo menperatzea dauka helburutzat.

• **Noiz eta nola hasi zinen eskiatzen?**

Orain dela bost urte inguru eskiatu nuen lehengoko aldiz. Formigalera irteera bat antolatu zen, eta aproba egiteko momentu egokia iruditu zitzaidan.

• **Nola ikasi zenuen?**

Beste askok bezala, nire kontu ikasi nuen; besteek egiten dituzten akatsak zuzendu eta ipurdiko ugari hartuz. Nire ustez ez dago monitore batekin ikasi beharrik, gauza gehienak bezala, ibiliaz ikasten da eta.


Hasieran kosta egiten da, eta ondo ikasteko, urtean behin baino gehiagotan joatea komeni da.

• **Urtean zehar zenbat aldiz joaten zara eskiatzera?**

Urteko lau hilabetetan, asteburuero eskiatzen saiatzen naiz. Horretarako, zazpi lagunen artean, Frantzian etxe bat alokatzen dugu. Hirugarren aldia da Luz-Saint-Sauveren etxea alokatzen duguna.

• **Eta zergatik Frantzia?**

Ingurune hori oso interesgarria



iruditzen zait, eta gainera Espainian eskiatzea baino merkeagoa da. Gaur egun dauden bideak edukita, ez dago bertara heltzeko arazorik.

• **Frantziatik kanpo beste lekuren batetan ere eskiatu duzu?**

Alpeetan eta Argentinan ere egon izan naiz. Eta hauek ere, leku zoragarriak dira.

• **Argentina esan duzu, eta nola ba bertaraino?**

Lagun bat eta biok, pasa den udako oporretan Argentinara joatea erabaki genuen. Orduantxe han negua zenez, ez genuen aukerarik galdu. Bertan igarotako 23 egunetatik, pare bat eskiatzeko

aprobetxatu genuen. Hura beste mundu bat da!

• **Zein baldintza bete behar dira egoera egokian eskiatzeko?**

Inork zapaldu gabeko edur berria izatea litzateke egokiena, eta egun eguzkitsu batek lagun-tzen badu, hobe.

• **Trabesiako eskia ere egiten duzu?**

Bai eta ez, lagun talde bat hasi ginen joan den urtean trabesiako eskia praktikatzen, hala ere, oraindik oso gutxitan egin izan dut. Nire ustez, lehenengo pistan ondo ibiltzen ikasi beharra dago, eta hau menperatuta dagoenean, mendira zuzendu. Pistako eskian hobeto moldatutakoan, trabesiako eskia ere maizago egingo dut.

• **Zeintzuk dira pistako eta trabesiako eskiaren arteko ezberdintasunak?**

Elurra da gehien nabaritzen den ezberdintasuna. Pistan zapalduta dago, eta mendian aldiz, norberak egin behar du bere bidea. Baliteke bigarren hau, pistakoa baino arriskutsuagoa izatea ere.

Eskiatzeko era ere ezberdina da, eta trabesiako eskia egiteko, lehengo pista ondo menderatu behar dela uste dut. Bai bata eta bai bestea, asko gustatzen zaizkit.

IRIARTE
Umeen denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

Podizipedidoen murgilketei begira

Podizipoena, gure lurraldera ongi egokitu diren hegazti akuatikoko murgilarien familia berezia da. Espezie ugari osatzen badute ere, arruntenak Murgil erregea eta Txilinporta txikia dira.

Murgil erregea

(*Podiceps cristatus*,
Somormujo lacanco):

Luzeera: 47zm.

Pisua: 800-1100 g.

Ahate baten neurritan dabilen arren zisne itxura nabariagoa du. Berez animalia zuria da bizkarraldea grisaska duena. Lepo luzearen gainean hainbat kresta gorritz apainduriko burua erakusten digu, ahizto itxurako mokoaz ongi armatua. Negu partean ordea gangar hoiek faltan botako dizkiogu.

Elegantziaz egiten du igeri, eta izenak adierazten duen gisa murgilari trebea dugu, hala beharko, bere dietaren osagai nagusi diren arrainak harrapatuko baditu. Beste berezitasunik ere badu, txitoak bizkarrean eramatearena kasu.

Urkulun ia urte osoan ikus dezakegu, izan ere bizileku aproposa aukitu baitu gure urtegian.

Txilinporta txikia

(*Podiceps rufficollis*, *Zampullín chico*):

Luzeera: 24 zm.

Pisua: 200 g.

Talde osoko espezierik txikiena da txilinporta. Batere deigarriak ez diren kolore ilunez apainduriko hegazti honek ere badu bereizgarrikerik bere itxuran, esate baterako lepoko luma gorrixkak edota mokoaren barrenean erraz ikus diezaiokegun orbain horia. Negu partean kolore argiagoak erakutsi ohi ditu.

Izugarri maite du murgiltzea eta noski ezaugarri honetaz baliatzen da elikatzeko orduan, izan ere arrain txikien, zapaburuaren eta beste hainbat izaki urtarren zale amorratua baita. Txilinportaren murgilketaz gozatu ahal izango dugu apirila aldera iparraldera joango zaigun arte.



Murgil erregea



Txilinporta txikia

Mikel Arroiabe



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

REGIO

optica

Loramendi, 10
☎ 79 93 21

**Etxabe
harategia**

Durana 4
☎ 79 16 61

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, ☎ 79 59 05
ARETXABALETAKA

**ARBULO
HARATEGIA**

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETAKA



alartza eta Untzilako Santa Ageda mutilak ditugu kasu honetan argazkian. Santa Ageda bezperan Galartza, Izurieta, Gellao eta Untzilako baserrietan batzean eta kantuan egiteko elkartzen ziren. Auzotar gazteak gutxi zirenez, adin desberdinetakoak elkartu eta denek batera egiten zuten batzea. Baserrietako atarian, Santa Agedaren bizitza eta heriotzaren bertsoak kantatuz, txorizo, arraultza, odoloste eta mortzilak, baita batzutan dirua ere, batu eta ondoren afari ederra egiten zen jasotakoaz.

Santa Ageda egunez, meza izaten zen lehendabizi Galartzan, ondoren bazkari ederra aurreko egunean batutakoarekin. Baina jaia ez zen hemen bukatzen, izan ere, arratsaldean, Santa Ageda auzora jeisten ziren erromeriara.

Argazkia 1955. urte inguruan ateratakoa da, kinto bakarra dago, Eusebio Gastañaga, besteak, gazteagoak edo zaharragoak dira.

Argakian: Zutik: **Jesus Garai, Eusebio Gastañaga, Justino Zaloña, Jose Mari Arana.**

Jarrita: **Jesus, Jabier Arana eta Miguel Urrutia.**

Argazkia eta informazioa: Eusebio Gastañaga.

Martín
RELOJERIA - BIXTIGERIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK

RKU

Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33

Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 77 11 76

LANA

◆ Emakume euskalduna behar dugu umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 77 10 62.

◆ REMeko 3. mailako giza-zientzia arloko matematikak emateko pertsona behar da. Deitu 79 71 32 telefonora.

◆ Pertsona bat, emakumea hobe, behar da ordu batzutan umeak zaintzeko. 79 67 26.

◆ Emakume euskalduna behar da ume bi zaintzeko (arratsaldeko 8etatik aurrera deitu 77 11 85 telefonora).

◆ Martxan dagoen negozioa jabeaz aldatzen da Aretxabaletan. 799534 telefonora deitu. Angel.

Lanpostu publikoak

◆ **Osakidetza**

Emagina: 20 lanpostu

Fisioterapeuta: 11 lanpostu

Osasun tekniko espezialista

(patologia, laborategia, fadiologia): 29 lanpostu.

Aurkezteko epea: 98-2-8

Informatika teknikaria: 5

lanpostu.

Goi mailako informatikaria: 4


lanpostu.

Aurkezteko epea: 98-2-9

◆ **Nafarroako osasun zerbitzua**

Erizaina: lan-poltsa

Erizain laguntzailea: lan-poltsa



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.

Radiodiagnostiko teknikari

espezialista: lan-poltsa

Fisioterapeuta: lan-poltsa

Aurkezteko epea: 98-2-11

Langaiko lan eskaintza

◆ **Komertzial kimiko teknikaria,**

Gasteizen kokaturiko enpresa.

Ref.5272/2

◆ **Bilteginzaina.** Deba Behean

kokaturiko enpresa.

Ref.5323/3

◆ **Tailer mekanikoko burua.**

Deba Behean kokaturiko enpresa.

Ref. 5570/1

DENETARIK

◆ Urtarrilaren 10ean, larunbata,

Untzila eta Aretxabaleta bitartean "Alan CT180" irrati transmisorea galdu nuen. Aurkitu duenak deitu mesedez 79 41 57 telefonora.

◆ Karreterako bizikleta salgai. Egoera onean. 79 29 12 (dendako ordutegian deitu).

ETXEBIZITZA

◆ Garaje bat salgai dago Murubiden. Prezio onean. Telefonoa: 79 86 12 (Arratsaldeko 7etatik aurrera).

◆ Bikote batek etxebizitza erosiko luke Portasolen. 79 04 62. Mari Josegatik galdetu.

LEHIAKETAK

◆ **Bideo amateurra**

Gaztebideo, Gazteen argumentudun bideo amateurra, VI. erakustaldia.

Filmeak (hiru kopia, VHS sisteman) aurkezteko epea 1998ko maiatzaren 15ean bukatzen da. VI. jaialdirako deia egiten du.

Jaialdia Vitoria-Gasteiz 1998ko ekainean izango da eta bertan finalera iritsitako filmeak egongo dira. Oinarriak: Gaztebideo, 945-286142. e-mail:

gaztebideo@edunet.iber.net.es

◆ **Kartel lehiaketa**

Arrasateko Udalak Martxoak 8 egunerako kartel lehiaketa antolatu du. Kartelak izan beharko duen testua: Martxoak 8: danok batera. Kartelaren neurriak gehienez: 50X70. Saria 50.000 pta. Epea: Otsailak 18, udaletxeko emakume sailean.



Basabe Poligonoa A-15

☎ 79 34 28

ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8

Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Urtarrila hilabete luzea



Gaztetatik entzun izan dut urtarrila hilabete luzea dela, urte zaharra alde batera uztea eta berriarekin hastea gogorra izaten dela, gabonetako haundikerien ostean urtarrilak Turmaletak baino aldapa gogorragoa duela, baina aurtengoa Aretxagazetakoentzat behintzat motza izan da eta egun bat gehiago jarri diote. Agendan behintzat urtarrilak 32rako iragarri zuten Murruxok antolatutako mendi irteera. Ea hurrengo alerako otsailak zenbat egun izan behar dituen jakitea lortzen dudana.

Kontu xeble hauek alde batera utzita otsaila hasi hala urtero errepikatzen diren ohiturak datoz gugana. Sailluentera joatea, Santa Ageda mutilak, aratusteak etabar. Santa Ageda mutil batek dantza ganoraz egiten jakin behar du eta lan horretan irakasle gisa aurten ere neskak, gu barik ezin bizi. **Arantzazu Martinez, Irtzeder Iturri, Igone Zaloña, Eki Usandizaga** eta **Elisabeth Blanco** dira irakasleak. Ea nola moldatzen diren! Lan gogorra egin

beharko dutenak plazan aureskua eta desafioa dantzatu behar dutenak dira: **Garikoitz Iturbe, Ekaitz Filarmendi, Gorka Nelson, Ibon Bartolome, Aitor Zubizarreta, Gorka Gabilondo, Haritz Oihanguren eta Ibai Landaluze**. Ea ondo uzten duten 79koen izena.

Dantzatik kantura pasatuz esan behar da Atxabalta eta Azpeitiako koruek El Caserio opereta abestuko dutela otsailaren 15ean. Atxabaltatik bakarrik abestuko dutenak **Mariatxen Urkia** eta **Mari Karmen Etxeandia** dira. Orkestran atxabaltar bat izango da, **Jose Ramon Kintanilla**. Emankizuna parrokian izango da, eta beraz badakizue nora hurbildu.

Bestalde bertsozale elkarteko arduradunen batzarra Atxabaltan izan zen aurreko astean. Normalean Donostian egiten badute ere, oraingoan hemen izan zen eta akaso partaideetako baten bat bertara eramateko modu bakarra izango zen. Batzarrera hurbildu zirenak, **Imanol Lazkano** (Lehendakaria), **Andoni Egaña** (Ikerketa arduraduna), **Jon Sarasua** (Komunikabideetako arduraduna), **Iñaki Murua** (Hezkuntza arduraduna) eta **Jesus Murua** eta **Koldo Tapia** elkarteko partaideak besteak beste izan ziren.

Eta kontu hau bitxia iruditu bazaizue oraindik bitxiagoa da San Migel auzoan gertatzen dena. Etxeetako balkoietatik kulero, gantzontzilo eta zintzilik dauden guztiak lapurtzen dabilta.

Beraz bertara hurbildu behar zaretenok kontuz ibili edo arriskurik ez izateko bilusik joan.

Liburutegiko txokoa

Liburu eta aldizkari berriak liburutegian

Literatura

- Nueva etiopía / Atxaga, Bernardo
- El lector / Schlink, Bernhard
- Waslala / Belli, Gioconda
- La tempestad / de Prada, Juan Manuel
- Melody / Andrews, V .C.
- Amador o la narración de un hombre afortunado / Ferrero, Jesús

Kontsulta liburuak

- Diccionario de pensadores contemporáneos
- Windows 95 euskaraz / Sala, Genevieve
- Militarismoa eta antimilitarismoa / UEU
- La cuestión del cáñamo / Escotado, Antonio
- ETA pm. El otro camino / Giacopuzzi, Giovanni
- Merkataritzan euskaraz / Nogeras , Itziar

- Euskal hiztegi entziklopedikoa / Harluxet Fundazioa

Haur literatura

- El libro sorpresa de Elmer / McKee, David
- El castillo encantado / Laslett, Stephanie
- Amigos de Dodo en América del Norte / Berg, Eva Van den
- El maravilloso viaje de Alejandro / Mehren, Gisela
- Maisy se va a la cama / Cousins, Lucy
- Historias de soles / Davi

Aldizkariak

- Bike a fondo
- Desnivel
- PC World
- Que leer

Joseba Lopez de Armentia

OTSAILA

||

15

5

eguztena

domeka

eguna

SANTA AGEDA MUTILAK

Ohiturari jarraituz Santa Ageda mutilak banakoa eta desafioa eskainiko digute herriko plazan arratsaldeko 7etan.

BILERA INFORMATIBOA

“Zatoz ezagutzera” bilera informatiboa San Viator Txiki Ikastolan. 17:45etan euskaraz eta 19:00etan erdaraz.

KONTZERTUA

“El caserio” Jesus Guridiren obra kantatuko dute Julian Barrenetxea Azpeitiako abesbatzak eta Aretxabaletako abesbatzak. Arratsaldeko 6etan parrokian.

7

12

zapatua

eguna

**MEZA “ADIVASI”
ERRITORA**

Arratsaldeko 7,30etan meza “Adivasi” erritorea izango da Andra Mari parrokian.

BILERA INFORMATIBOA

“Zatoz ezagutzera” bilera informatiboa Arrasateko Umezaintza ikastolan. 17:45etan euskaraz eta 19:00etan erdaraz.



SANTA AGEDA MUTILAK

Santa Ageda mutilak banakoa eta desafioa eskainiko digute herriko plazan arratsaldeko 7etan.

8

13

domeka

egukotxa

**MEZA “ADIVASI”
ERRITORA**

Goizeko 9etan monjetan.

SANTA AGEDA MUTILAK

Santa Ageda mutilak banakoa eta desafioa eskainiko digute herriko plazan arratsaldeko 7etan.

KONFERENTZIA

Indiako Adivasiengatik inguruko konferentzia, musika saioa eta dantzak. Arratsaldeko 7,30etan hasita Zaraia zineman.

18

eguztena

BILERA INFORMATIBOA

“Zatoz ezagutzera” bilera informatiboa Almen ikastolan. 17:45etan euskaraz eta 19:00etan erdaraz.

Z
I
N
E
A



ZUZENDARIA: Jean-Jacques Annaud, David Thewlis, Wong Mako....

AKTOREA: Brad Pitt.

Siete años en el Tibet

Errealitatean gertatutako istorio honek, Heinrich Harrer mendizale austriarraren bizitza kontatzen du.

Pelikulako protagonista Indiara joango da bertako mendi bat eskalatzeko helburuaz. Bertan britaniarren kontzentrazio eremu batean atxilotuko dute baina ihes egitea lortuko du bigarren mundu gerra hasten denean.

Ihesian Himalaya osoan zeharkatu ondoren, Tibetera iritsiko da. Dalai Lama ezagutuko du bertan eta bere aholkulari eta tutore bihurtuko da.

18
eguna

ERAKUSKETAK

MARGO ERAKUSKETA

Margo lagunak taldeak bere ikasleen margo erakusketa antolatu du. Euskal txokoan egongo dira ikusgai otsaileko hiru astebukaeretan, otsailaren 7an hasi eta 22a arte.



BEHARREZKO
TELEFONOAK

BILERA INFORMATIBOA

“Zatoz ezagutzera” bilera informatiboa San Frantzisko Xabier ikastolan. 17:45etan euskaraz eta 19:00etan erdaraz.

21
zapatua

ANTZERKIA

Karra Elejalderen “La kabra tira al monte” antzerkia gaueko 10,30etan Zاراia zineman. Sarrerak aurrez 1.000 pta. Arlutz, Gurea, Artano eta Kultur Etxean. Takilan 1.200 pta.

Aretxabaleta

• Almen	71 49 07
• Aretxagazeta	79 01 05
• Basotxo	77 09 81
• Euskalategia	79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Hezibide Elkartea	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Kiroletxea	79 64 61
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Liburutegia	79 10 00
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Ludoteka	79 05 81
• Murrukixo M.E.	79 93 74
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Osasun zentroa	79 74 58
• Otalora	79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Postetxea	79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Urats Gain	79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	79 53 00
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Larrialdia (Arrasate)	77 10 43
• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• SOS Deiak	088
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00

LA KABRA TIRA AL MONTE



Karra Elejalde

Z A R A I A Z I N E M A

Otsailak 6, 7, 8, 9

SIETE AÑOS EN EL TIBET

Otsailak 8 (Umeentzat)

SPICEWORD-THE MOVIE

(Prezioa: 425 pta)

Otsailak 13, 14, 15, 16

FULL MONTY

Ordutegia:

Eguakotxa-zapatua: 10,15
Domeka: 5etan (Umeen saioa)
7,30
10,15
Astlehena: 10,15

Oharra: Spiceword-The Movie pelikularen sarrera 425 pta izango da.



Arantzazu Martinezek, Gasteizen Puerikultura ikasten eta Pausoka haurtzaindegian praktikak egiten dituen 19 urteko gazte honek, dantza erakusteko ere beti dauka lekuren bat edo beste.

• Nolatan Santa Ageda mutileri dantzak erakusten?

Urte askotan ibili izan naiz dantza taldean euskal dantzak ikasten, aurreko urtean Santa Ageda mutileri erakustea proposatu zidaten arte.

• Kasurik egiten al dute?

Egia esan hasieran kosta egiten zaie, baina denbora pasa ahala, lehengokoan egiten dute. Ez daukate beste erremediorik!

• Zer da samurragoa, Santa

“Santa Ageda mutileri erakustea haurrei baino samurragoa da”

Ageda mutileri ala haurrei erakustea?

Santa Ageda mutileri, duda barik gainera. Umeak sarri jolasten hasten dira, eta ez dago beraiekin entsaia-tzerik.

• Zer deritzozu "Txino dantza" neskek ere dantzatzeari?

Oso ondo. Zergatik egingo dute mutileri bakarrik ba?

• Txikitako jostailu bat?

Oraindik gordetzen dudana panpin bat.

• Kirola egiteko ala ikusteko?

Ikusteko.

• Futbolariak kexatiak dira?

Bai, batzuk bai. Daukaten mina baino gehiago adierazten dute.

• Egin duzun juergarik onena?

Ufff! Aurreko urteko Andra Mari bezperan.

• Zerk lotsarazten zaitu?

Edozer gauzak.

• Izen bat?

Ander.

• Aktore bat?

Aktoreei buruz ez dakit gauza handirik. Modan dagoen Brad Pitt esan beharko!.

• Zerekin egiten duzu barre?

Barre erraz egiten dutenetarikoak naiz.

• Adin bat?

20 urte.

• Mutilak belarritakoaz ala barik?

Orokorrean belarritakoaz.

• Ezkontzeko adinik egokiena? 28 edo? ez dakit.

• Alkate bazina zer aldatuko zenuke Aretxabaletan?

Parke gehiago jarriko nitzuke.

• Txisteak entzun ala kontatu?

Entzun. Kontatzen hasten naizenean, bukatu aurretik neu hasten naiz barrezka.

• Koloniak bai ala ez?

Bai, baina momentuaren arabera eta freskoak.

• Zer gehituko zenioke Aretxagazetari?

Oso ondo dago dagoen bezala. Zer esango dut bat? Ja, ja, ja.

• Tabernak isteko orduari ondo deritzozu?

Gauetan sortzen den giroa kontutan izanik, 5ak edo 6ak arte zabalik egon beharko liriteke, gehienak lehenago ixten dira.

• Zer ez zenuke inoiz jantziko?

Plataforma handiko zapata batzuk.


• Gustoko lan bat?

Pausokan egiten dudana. Horrelako lan bat egiteko ari naiz puerikultura ikasten.

KOMIKIA


EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe



GAUA HASI ZEN HIZKETAN, EGOERAZ OHIZKO LAGUNEKIN EZTABAIDAKA, GEROXEAGO ARITU GINEN FUTBOLAZ ETA TELE ALU GORROTAGARRIAZ. ZENBAT ESALDI ETA HITZ HUTSAK...
(Zarama)

Ongizate Aurrezpena



**Aurrezteko
modu
berria.**



Jada ez daukazu zure aurrezkiak epe jakin batera lotuta izan beharrik.



Orain Euskadiko Kutxaren Ongizate Aurrezkiak duzu.


Aurrezteko sistema berriak ugaritu egin badira ere, aurreztaileen %50ak nahiago du ohiko Eperako Aurrezkiak, nahiz eta epearen eragozpena izan. Pertsona horiek orain Euskadiko Kutxaren Ongizate Aurrezkiak dute. Eperako Aurrezkiaren errentagarritasun, segurtasun eta erraztasun berberetz gozatzeko jarrai dezaten eta, gainera, beren aurrezkiak askatasun osoz eskuratzeko aukera izan dezaten. Ongizate Aurrezkiak. Eperako aurrezkiak bezalakoa, baina epe-rik gabe.



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

Erantzun zuzena

Informa zaituz Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan edo 901-333-444 telefonoan.



OKENDO KIROLAK

KIROL MODA GUZTIA
DESKONTU BEREZIEKIN!

TXAMARRAK • TXANDALAK • ZAPATILAK

